



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

Pediatria eta arlo espezifikoak

Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila**



Prestakuntzaren Planifikazio-Garapen-Ebaluazioan koherentzia

Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.
<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



PEDIATRIAKO ZERBITZUA

Pediatriako Zerbitzuaren xedea da osasun-asistentzia espezialiatu eraginkorra, segurua eta kalitatekoa eskaintzea, artatzen duen populazio pediatrikoaren beharriari erantzuten diena. Pazientea eta bere familia ardatza duen jardura asistentziaz gain, irakaslan konprometitua eta ikerketa aurreratua garatzen ditu.

Irakasleari dagokionez, graduatu aurreko eta graduatu ondoko prestakuntzako inplikazioa etengabekoa eta jarraitua da. Ospitaleko pediatrek Euskal Herriko Medikuntza Fakultatean jarduten dute irakasle gisa, eta ekintza ugari egiten dituzte graduatu aurreko ikasleekin. Jardunbide egoki gisa, azpimarratzekoak dira tutore baten izendapena ikasleen segimendua egiteko, ospitale birtuala eta zerbitzuaren beraren jardueran integraturiko praktika. Horretaz gain, pediatriako espezialisten graduondoko prestakuntzarekiko konpromisoa du (8-10 egoiliar urtean Gurutzetako UOn eta 15-20 inguru beste zentro batzuetan). Prestakuntza-programa eguneratu egiten da tarteka, Osasun eta Kontsumo Ministerioaren programarekin, Pediatria Hezkuntzako Partzuergo Globalaren nazioarteko gomendioekin eta Gurutzetako UOren gaitasunetan oinarrituriko sistemarekin bat. Horretaz gain, prestakuntza-egonaldien bidez parte hartzen du EAEko eta beste autonomia-erkidego eta herrialde batzuetako pediatren etengabeko prestakuntzan.

Jarraian, hauek azalduko dira:

- Nor gara
- Non gaude
- Irakaskuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)
- Ikerketa
- Prestakuntzaren ebaluazioa



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Guruztetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Nor gara



Zerbitziburua: Itziar Astigarraga Aguirre dk

Tutores/as:

Itxaso Rica Echevarria dk	Loudes Román Etxebarria dk	Miguel Vázquez Ronco dk	Miguel García Ariza dk	Yolanda López Fernández dk
M^a Teresa Labayru Echeverria dk	Susana Capape Zache dk	Silvia García González dk	Borja Gómez Cortés dk	



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Tutoreak:

Itxaso Rica Echevarria, Endokrinologia Pediatrikoko atalburua . Pediatriako Zerbitzua. BAME irakaskuntzako koordinatzailea

Silvia García González, mediku adjuntua. Pediatriako Larrialdietako Zerbitzua

Borja Gómez Cortés, mediku adjuntua. Pediatriako Larrialdietako Zerbitzua

Susana Capape Zache, mediku adjuntua. Pediatriako Larrialdietako Zerbitzua

Yolanda López Fernández, Zainketa Intentsibo Pediatrikoko mediku adjuntua . Pediatriako Z.

M^a Teresa Labayru Echeverría, Bularreko Umeen Unitateko mediku adjuntua. Pediatriako Z.

Lourdes Román Echevarría, Perinatologia-Neonatologiako atalburua. Pediatriako Z.

Miguel Vázquez Ronco, Eskola Unitateko mediku adjuntua. Pediatriako Z.

Miguel García Ariza, Hematologia eta Onkologia Pediatrikoko mediku adjuntua. Pediatriako Z.

Pediatriako Zerbitzuaren historia laburra:

Pediatriako Zerbitzua 1971 urtean sortu zen, eta urte horietan honako hauek zuzendu dute zerbitzua: Juan Rodríguez Soriano irakasle dk., José Luis Bezanilla dk. Alfredo Vallo dk. 2004az geroztik, Itziar Astigarraga da zerbitzuaren antolamendua eta kudeaketa klinikoaren arduraduna.

Gaur egun, espezialistak prestatzeko programak eskaintzen ditu 36 espezialitatetan. Familia eta Komunitateko Medikuntza izan ezik, Pediatriako Zerbitzua da espezialista gehien hartzen dituen, 10 egoiliar urteko, gehienez. Prestakuntza eta irakaskuntza ospitaleko eguneko jardueran txertatzen dira eta zerbitzuko mediku guztien ardura da.

Zerbitzuaren garapenean, hauek izan dira gertakaririk nabarmenenak :



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- Hastapenetan, Pediatria Departamentua zen, eta Medikuntza Pediatrikoa eta Kirurgiko Pediatrikoa hartzen zituen bere baitan.
- 70 hamarkadatik aurrera, Pediatriako arlo espezifikoak garatu ziren, eta pediatriako azpi-espezialitateak arian-arian sortu.
- 70. hamarkadatik aurrera, Zainketa Intentsiboetako Unitateak bultzatu ziren, hala Jaioberriak nola Pediatrikoak, .
- 70. hamarkadatik aurrera, Pediatriako azpi-espezialitaterik konplexuenak artatzen ditugu eta aitortza jaso dugu hainbat arlotan, hala nola prematuro handiak, sortzetiko kardiopatiak, fibrosi kistikoa, metabolopatia hereditarioak, haur-minbizia eta haur-erreumatologia.
- Estatuko erreferentziako zentroa gara prozedura konplexuetan: giltzurruneko transplante pediatrikoan, 1981az geroztik; eta CSUR akreditatua, 2009tik aurrera.
- 1991n Onkohematologia Pediatrikoko Unitatea zabaldu zen, eta 1993an Eguneko Ospitalea.
- 1992az geroztik, zenbait pediatrik dedikazio eskusiboa ematen diote Pediatriako Larrialdietako azpi-espezialitateari. 2014an, Kudeaketa Klinikoko Unitate aitortu zitzaion, eta 2012an Zerbitzu izendatu zen , Javier Benito dk. zerbitzuburu.
- 2010etik aurrera, Jaioberrien etxeko arreta ; 2012an, Pediatriako Etxeko Ospitalizazioko Unitatea sortu zen.
- Lankidetzira iraunkorra Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU/UPV) 1968az geroztik, Medikuntza Fakultatea sortu zenetik, alegia.
- Ikerketa-jarduera EHU/UPV-arekin batera: Gurutzetako Ospitaleko Ikerketa Unitatea – 1993an akreditatua-, BioCruces Ikerketa Institutua 2008tik aurrera, eta estatu zein nazioarteko mota askotako erakunde.
- Ikerketa-ibilbide luze eta aberatsa Neonatologian, Endokrinologian, Gastroenterologian, Metabolismoan eta Onkologian.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- ❑ Kudeaketaren kalitatea aitortzen duen Zilarrezko Q-a lortzen lagundu dugu 2008an Gurutzetako UOri eman zitzaiona.
- ❑ 2014an, prozesuen bidezko kudeaketa Gurutzetako UOn zabaltzen lagundu genuen, eta ISO 9001 ziurtagiria lortu genuen ospitalizazio arloan (ospitalizazio pediatrikoa barne), UNE 166002 Berrikuntzan eta Ekoscan ziurtagiria Ingurumen arloan.
- ❑ Metabolismoko laborategiaren ziurtagiriak: AENORren ISO9001:2000 ziurtagiria 2005ean. Quality Assurance in Laboratory Testing for EIM 2005-2015: European Research Network for disorder inherited metabolism, hauetan: azilkarnitinak, azido organikoak, plama eta gerneruaren analisi bereziak, aminoazidoak.
- ❑ Erreferentziako Zentro, Zerbitzu, Unitate (CSUR) aitortza Osasun Ministerioaren aldetik, hain zuzen, sortzetiko gaixotasun metabolikoetan (2015) eta epilepsia unitatean (2015).
- ❑ Best in Class Saria Pediatriako Zerbitzurik onenari (2015).

Pediatriako Zerbitzuaren plantilla honako hauek osatzen dute:

- ✓ 1 zerbitzuburu
- ✓ 7 atalburu
- ✓ 56 mediku adjuntu
- ✓ 1 psikologo klinikoa

Pediatriako Larrialdietako Zerbitzuaren plantilla honako hauek osatzen dute:

- ✓ 1 zerbitzuburu
- ✓ 1 atalburu
- ✓ 15 mediku adjuntu



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Gainera, hauek ere osatzen dute pediatriako taldea:

Erizainak: 215

Pediatriako erizaintzako laguntzaileak: 151

Administrari laguntzaileak: 10,5

Zeladoreak: 1

Patologia kirurgikoa duten ume zein nerabeak Kirurgia Pediatrikoko Zerbitzuak artatzen ditu (1 zerbitzuburu, 2 atalburu kliniko eta 7 mediku adjuntu). Psikiatra, traumatologo, otorrino eta oftalmologo pediatrikoek ere parte hartzen dute.

Zerbitzuak 6 eremu ditu ospitalizazioan:

- Amarekin egon daitezkeen jaioberriak amaetxeko 2 solairuetan ospitaleratzen dira, eta patologiaren bat dutenak Jaioberrien Unitatean (38 ohe; horietatik 12 Zainketa Intentsiboak).
- 2 urte arteko umeak Bularreko Umeen Unitatean ospitaleratzen dira (24 ohe) eta 2 urtetik 17 urtetara, Eskola Unitatean (28 ohe).
- Zainketa Intentsiboak behar izanez gero, PZIUn ospitaleratzen dira (12 ohe); eta minbizia edo arazo hematologikoak izanez gero, Onko-hematologiako Unitatean (16 ohe).

Arreta pediatrikoaren barruan, Gurutzetako UOk honako hauek ere eskaintzen ditu: Pediatriako Larrialdietako Zerbitzua, Pediatria eta Onko-hematologia Pediatrikoko Eguneko Ospitaleak eta Kanpo Kontsultetako 22 bulego. Gainera, 2013an **pediatriako lehen mailako arretaren eta ospitaleko arreta espezializatuaren arteko kontsulta ez presentzialak** abiarazi ziren, eta 2014an pediatriako azpi-espezialitate guztietara eta Bizkaiko erreferentziako arlo guztietara zabaldu zen.

Urteko asistentzia-jardueren gaineko datu guztiak hemen ikus daitezke: **[Hospitalcruces.MemoriaDinamica](#)**. 2014an garatutako asistentzia-jardueraren adibide gisa, balio



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



bezate datu hauek: erditze-kopurua 5.619; ospitaleratze-kopurua 5.638; kanpo kontsultetan artatutako pazienteen kopurua 51.250; bisitak eguneko ospitalean 5243; kontsultak larrialdietan 52.316; kontsulta ez presentzialak 771.

Gainera, **erreferenteak gara** paziente pediatriko konplexuentzako hainbat espezialitate pediatrikotan eta, benetan, esperientzia-zentro bezala funtzionatzen du Osakidetzako beste zentroetatik edo gure Erkidego kanpotik deribatutako pazienteentzat.

- Alergia eta Immunologia Klinikoa: Inmunoeskasiak, desentsibilizazioak
- Endokrinologia: Diabetesa, patologia tiroidea eta hipofisaria
- Erreumatologia: Artritis erreumatoidea, gaixotasun autoinmuneak, autoinflamatorioak
- Gastroenterologia, Hepatologia eta Nutrizioa: gaixotasun zeliakoa, heste-gaixotasun Inflamatorioak, hepatopatiak, etxeko nutrizio parenterala, endoskopiak
- Infektologia: infekzio nosokomiala, IHESa, arrisku-taldeen txertaketa
- Jaiotza inguruko Medikuntza: fetu-terapia, malformazioen jaiotze aurreko diagnostikoa , prematuro berantiarrak
- Kardiologia: Sortzetiko kardiopatiak (jaiotze aurreko eta ondoko diagnostikoa), kirurgiarako egokiespenak, kateterismo eta ebakuntza ondoko maneia.
- Metabolismoa: sortzetiko metabolismo-akatsak, hiperlipidemiak
- Nefrologia: giltzurruneko transplantea, hemodialisia, dialisis peritoneala, giltzurruneko gutxiegitasuna, tubulopatiak
- Neonatologia: prematuro handiak, malformazioak, aireztapen mekanikoa, hemodiafiltrazioa
- Neurologia: Epilepsia, garapen-nahasmenduak, iktsua
- Onkohematologia: leuzemiak, garuneko tumoreak, bestelako minibiziak, tronbopeniak
- Pediatriko Zainketa Intentsiboak: ECMOa, aireztapen mekaniko ez inbaditzailea, bihotzeko kirurgien ebakuntza ondokoa, neurokirurgiak, sepsi larriak
- Pneumologia: fibrosi kistikoa, bronkoskopiak, pneumopatia kronikoak



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Bestalde, Gurutzetako UOko Pediatria Zerbitzuak **familian oinarrituriko pediatriako pazientearen arretarako ekimenak** garatzekoekimen **sozio-sanitarioetan** parte hartzen du. Hona hemen horren adibideetako batzuk:

- **Factor Humano proiektuaren garapena.** Proiektuaren helburuen artean, azpimarratzekoak dira: emozionalki osasungarria izango den eta paziente ardatz izango duen harreman-kultura sustatzea, pediatriako unitate guztietan giza harremanak hobetzea, komunikazio-kode komun baterako tresnak sortzea, pazienteak/familiak osasunaren zaintzan parte har dezaten sustatzea, tratuan eragina izango duten hobetzeko arloak identifikatzea.
- **Humanizazio Plana:** kanpoko hainbat elkarterekin, fundaziorekin eta enpresarekin lan egitea osasun-arreta humanizatuago eta integralago bat lortzeko ekintzak garatzeko.
- **BBK Gizarte Ekintzarekin hitzarmena, BBK BIZI programa diseinatzeko.** Programaren helburua ospitaleratutako haurrak dituzten familiei apartamentuak lagatzea da.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Non gaude

Asistentzia aldetik, zerbitzua bost bloke handitan dago banatuta: ospitaleratzea, larrialdiak, eguneko ospitalea, etxeko ospitaleratzea eta kanpoko kontsultak. Ospitaleratutako pazienteen banaketa adinaren eta patologia motaren arabera egiten da, eta hainbat eremu berezitu ezartzen dira:

1. Perinatologia

Medikuntza Perinatalak jaio aurreko zaintzak –obstetrizia zerbitzuekin koordinazioan–, erditze patologikorako arreta eta jaioberriaren lehen zaintzak biltzen ditu, baita jaioberri osasuntsuaren, amagandik berezi gabe artatu daitezkeen patologiak dituzten jaioberrien eta prematuro berantiarren talde bereziaren arreta integrala ere. Laguntza ataleko buru batek eta hiru neonatologok gauzatzen dute, Terapia Fetaleko sailean, Erditzeetan eta Amatasun Unitateetan.

2. Neonatologiako unitatea

Neonatologiako unitatea 6. solairuko E blokean dago eta 2004an berritu zuten. Zainketa intentsiboetarako 12 sehaska ditu (UCIN/PZIU), 2 isolamendurako eta 26 zainketa ertainetarako. Unitateko taldean arduradun kliniko bat eta 8 neonatologo daude; haien zeregina jaioberri gaixoa eta prematuroa zaintzea da.

3. Bularreko haurren unitatea.

Bularreko haurren unitatean 24 sehaska daude, D blokeko 6. solairuan; bertan kokatzen dituzte 1 eta 24 hilabete arteko pazienteak. Hiru mediku adjuntuk lan egiten duten han, eta mota guztietako patologia medikoak eta kirurgikoak artatzen dituzte.

4. Pediatriako Zainketa Intentsiboetako Unitatea.

Pediatriako Zainketa Intentsiboetako Unitatea (PZIU) 6. solairuko D blokean dago kokatuta; guztira zainketa intentsiboetarako 12 ohe ditu eta 2008an berrituriko unitate bat. Unitatean lan egiten duen mediku taldean 8 mediku adjuntu eta arduradun kliniko 1 daude.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



5. **Onkologia eta Hematologia Unitatea.**

Pediatriako Onkohematologia atalak ospitaleratze espezifikoko unitate bat du minbizia eta hematologia-arazoak dituzten haurrentzat, eta 6. solairuko E blokean dago kokatuta. Guztira 16 ohe ditu eta Eguneko Ospitale espezifikoko bat 2 ohe eta 6 besaulkirekin. Lau pediatria espezializatuk egiten duten lan bertan.

6. **Eskola-umeen unitatea.**

Eskola-umeen unitateak, 5. solairuko D blokean, 28 ohe ditu eta bertara joaten dira 2 urtetik gorako eta 17 urtera arteko gainerako pediatriako pazienteak. Unitate honetako arduradunak 2 mediku adjuntu dira, horietako bat infektologia pediatrikorako lehentasunezko dedikazioarekin. Solairu horretan ospitaleratuta dauden haurren zati handi bat pediatriako edo kirurgiako espezialitateen mende dago.

7. **Haurrentzako kirurgia zerbitzua.**

Bosgarren solairuko E blokean.

8. **Hezkuntza Saileko ospitale-eskola.**

Bosgarren solairuko E blokean dago eta 2 irakaslek lan egiten dute bertan.

9. **Zibergela**

Bosgarren solairuko E blokean dago kokatuta. Ospitaleratuta dauden haurren eta haien familien aisiarako eta entretenimendurako gune hau arratsaldez egoten da irekita.

10. **Pediatriako etxez etxeko ospitaleratze-unitatea.**

Beheko solairuko A blokean dago kokatuta, 8. bulegoan. Unitate honetan bi mediku adjuntuk egiten dute lan.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



11. Pediatriako Larrialdietako Zerbitzua.

Ospitalera iristen diren 14 urtetik beherako pazienteen larrialdi guztiak artatzen eta bideratzen ditu, baita horietako gehienek tratamenduak ere. Patologia motaren arabera, kasuen ehuneko txiki batean, pazienteak beste espezialitate batzuekin batera artatzen dira; gehienbat, kirurgia, traumatologia, oftalmologia, otorrinolaringologia eta psikiatria. Taldean 15 mediku adjuntu, arduradun kliniko 1 eta unitateko arduradun bat daude. 1. sotoan dago kokatuta.

12. Eguneko ospitalea.

Ahal den guztietan, ingresatu gabeko ospitaleratzeak beti lagundu izan dio minbizia duten edo arazo hematologikoak dituzten haurrentzat 6. solairuan kokatuta dagoen eta pediatriako gainerako espezialitateetako patologiak dituzten haurrentzat 5. solairuan (zibergela E blokean) kokatuta dagoen atal honen garapen jarraituari.

13. Pediatriako kanpo-kontsultak.

Zerbitzuan egiten den laguntza-jardueraren zati handi bat modu ambulatorioan ematen da, eta beren jardun nagusia kanpo-kontsulten arloan egiten duten pediatriako espezialitateen kargura dago; pazienteen kopuru txiki batek ospitalizazioa behar izaten du noizbehinka. Plantillaren zati handi batek egiten du lan zerbitzuan garatzen diren pediatriako espezialitate horietan; hala nola: alergia eta immunologia klinikoa, kardiologia, endokrinologia, gastroenterologia, infektologia, metabolismoa, nefrologia, neumologia, neurologia, onkohematologia, pediatria orokorra eta reumatologia. Guztiak daude kokatuta Kanpo Kontsultetako eraikineko 2. solairuko bulegoetan, 3. solairuan dagoen neuropediatria izan ezik.

14. Kirurgia pediatrikoko erreferentziako zerbitzu bat dago Bizkairako eta Osakidetzako beste ospitale batzuetarako. Bosgarren solairuko E blokean dago.

15. Era berean, ospitaleko **Oftalmologia, Otorrinolaringologia, Ortopedia, Psikiatria eta Errehabilitazio** zerbitzuetan modu eskusiboan edo lehentasunez beren espezialitateko pediatriako patologiarik dedikaturiko espezialistak dituzte.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA

ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Pediatriko Zerbitzuko idazkaritza 5. Solairuan dago, D aldean, (Marina Santos and.), Telefonoa:
94.600.6357. Posta elektronikoa: Secretaria.PediatriaCruces@osakidetza.net



Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea:

Gurutzetako Plaza z. g. Barakaldo 48903.

Barakaldo, Bizkaia

[Ikusi ospitalea Google Maps](#) aplikazioan



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntza-eskaintza

[Pediatria eta Arlo Espezifikoko Barruko Medikueko Egoiliarren Prestakuntza Programa](#) Osasun eta Kontsumo Ministerioaren eta Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren 1996ko Espezialisten prestakuntza-gidan dago definituta eta 4 urteko iraupena du. Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko prestakuntza Osasun eta Kontsumo Ministerioaren programaren arabera egiten da. Prestakuntza-programan sartzen dira kardiologia asistentzial, prebentziozko eta sendagarriaren alderdi garrantzitsuenak.

Ezagutzekin batera transmititzen diren balioen helburua da arazo klinikoak ebazteko eraginkortasuna eta efizientzia lortzea, eta gizarteak eskaintzen dituen baliabideak modu arrazionalen erabiltzea eta banatzea. Erabakiak erantzukizunez hartzeaz gain, pazienteak berdintasunez tratatzeaz eta gaixotasunak sorrarazten dituen arazo indibidual eta sozialekin elkartasuna erakustez gain, jarduera profesionalaren gidari izan behar dute unibertsaltasunaren, ekitatearen eta solidaritatearen oinarriko printzipioek eta mediku-lanbideak berezkoak dituen arau etikoek.

Balio horiek transmitituz, prestakuntza-denboran zehar lortu behar da medikueko egoiliarrek ezagutza teorikoak eta trebetasun praktikoak eskuratzea, banakoen eta kolektiboaren osasun-maila hobetzeko motibazioa bizirik mantentzea, gero eta erantzukizun gehiago hartzea, osasun-arloko etorkizuneko profesionaleri eta gizarteari oro har ezagutzak transmititzen parte hartzea, eta mundu profesionalean integratzea.

Prestakuntza programaren helburu orokorra ezagutzak, trebetasun praktikoak eta beharrezkoak diren jarrerak lortzea da:

- ❑ Arazo kliniko pediatriko orokorrak eta arlo espezifikokoak artatzeko.
- ❑ Haur eta nerabeen osasuna sustatzeko pediatrik prestatzeko.
- ❑ Ikerketa klinikoko eta oinarriko ikerketako lanak egiteko.
- ❑ Osasun-arloko diziplina anitzeko lantaldeetako kide gisa eta, behar izanez gero, koordinatzaile gisa lan egiteko.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntza-sistema tutore batek gidatuko du beti, autoikaskuntzan oinarrituta. Gehienbat, asistentzia-errotazioaren bidez jasotzen dute prestakuntza egoiliarrek, ospitaleko kardiologiako atal eta arloek programatutako eran. Jarduera bakoitzak hainbat ardura maila izango ditu eta egoiliarrek bere gain hartu beharko ditu. Hiru maila bereiziko dira.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Pediatriako Zerbitzua **Irakaskuntzako Unitate Multiprofesionala** akreditatzeko bidean dago egun (2015). Eskaera Osasun Saileko Irakaskuntzako Zerbitzuaren bitartez aurkeztu da, eta Osasun Ministerioak noiz ebatzi zain dago.

Nahitaezko prestakuntza-ikastaroak egoitza-aldian:

Gurutzetako U. Ospitaleko irakaskuntza-batzordeak urtero planifikatzen ditu prestakuntzako ikastaro batzuk, eta ikastaro horien datak garaiz banatzen dira, egoiliar guztiak joateko moduan antolatu ahal izateko.

Pediatriako egoiliarrek ikastaro hauek egin beharko dituzte **lehenengo urtean**:

- Sarrera Praktika pediatrikoari
- Erradiologia pediatrikoa
- Haurrentzako elektrokardiograma
- Komunikazio-tailerra eta elkarrizketa klinikoa
- Pediatriako larrialdiak

Bigarren urtean, nahitaezkoa da ikastaro hauek egitea

- BBB pediatrikoa
- Bioetika
- Amagandiko edoskitzea

Horrez gain, ospitalean badago beste ikastaro asko, Irakaskuntzako Batzordeak zein Biocrucesek antolatuak. Asistentzia derrigorrezkoa ez bada ere, parte hartzea gomendatzen da.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- ❑ CASPE tailerrak irakakurketa kritikorako
- ❑ Cursos de paquetes estadísticos, SPSS, bases de datos y metodología de la investigación
- ❑ Bilaketa bibliografikoari buruzko tailerrak
- ❑ Mintegi zientifikoak

Guardiak egitea:

Egoiliarrek arlo hauetan egin behar dituzte guardiak: **Pediatriako Larrialdiak, Jaiotza inguruko Arloa, Pediatriako Zainketa Intentsiboetako Unitatea (PZIU) eta Jaioberrien Zainketa Intentsiboetako Unitatea (JZIU)**. Guardiak funtsezkoak dira egoiliarren asistentzia-jardueretan, eta presio asistenzialak irakaskuntza esplizitua baldintzen badu ere, egoiliarrek prestatzea dute xede. Adjuntu batek gainbegiratuko du egoiliarra guardia guztietan. Egoiliarrek apurka-apurka gero eta erantzukizun handiagoa hartuko dute prestakuntza-egonaldian, eta BAME aldia amaitutakoan, guardian batean azaldu daitezkeen patologia gehienak era egokian eta autonomoan artatzeko gaitasuna eduki beharko dute.

Gurutzetako UOko Irakaskuntzako Batzordeak gehienez 66 guardia/urteko onartu du egoiliarrentzat. Ministerioaren prestakuntza-planari jarraituz, pediatriako egoiliarrek 4-6 guardia artean egiten dute hilean, zerbitzuaren beharren arabera. 2004tik aurrera, guardia osteko librantzarako eskubidea onartzen zaie egoiliarrei. Guardia-ordutegiak hauek dira: 15:00 - 8:00 astegunetan eta 9:00 - 9:00 larunbat eta jaiegunetan.

Guardien banaketa egoitza-aldian:

- ❑ Lehenengo urtean: egoiliarrek Pediatriako Larrialdietan hasten dira guardiak egiten. Hilabete batez, guardiako taldera gehituko dira. Ondoren, guardiako postu bat beteko dute. 1. urteko BAMEen lana adjuntu batek gainbegiratuko du beti, eta haren txostenak mediku arduradunak sinatuko ditu. Helburu nagusia da urgentzietako zerbitzuko patologiarik ohikoenak ezagutzea, hain zuzen ere, oso larriak ez direnak.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- **Bigarren urtean:** egoiliarrak erditze-unitatean eta amaetxeko solairuetan arituko dira, batez ere, erditze-aldeko jaioberriari laguntza ematen haren egokitze-aldian: ustez normalak eta beren amekin dauden jaioberrien miaketaz arduratuko dira, ospitaleko alta eman aurretik. Erditze-aldeko egoiliarra Jaioberrien Unitateko guardia-taldeko partaide funtzionala da, beraz, Jaioberrien Unitateko adjuntu batek gainbegiratuko du haren lana eta arduratuko da berataz. Pediatriako Larrialdietan ere guardiak egingo ditu.
- **Hirugarren eta laugarren urteetan:** bi urte horietan, batez ere, Pediatriako Zainketa Intentsibo eta Jaioberrien Unitatean egiten dituzte guardiak egoiliarrek. Unitate horietan, egoiliarrek -tutore batek gainbegiraturik- guardia bitartean ingresatu edo jadanik ospitaleratuta dauden paziente kritikoen jarraipenaz arduratzen dira. Halaber, laguntza ematen diete guardiako pediatriei solairuetan, bertako paziente pediatrikoak artatuz. 3. eta 4. urteetan guardia gutxiago egiten da Larrialdietan, baina erabakitzeke autonomia handiagoa izaten da.

Etengabeko prestakuntza funtsezkoa da medikuaren gaitasun profesionala mantentzeko eta eguneratzeko, eta horretarako irakaskuntzako jarduera erregularren programa zabala prestatzen da, besteak beste, bilera klinikoak, ikastaro, komunikazio eta ponentzietan parte hartzea nazio-mailan eta nazioartean, argitalpenak egitea eta ikerketa-lerroak garatzea. Prestakuntza-aldian zehar, egoiliarrak pixkanaka joango dira sartzen zerbitzuan egiten diren jarduera horietan denetan, eta banakako saioak ere izango dituzte ezagutzak sakontzeko.

Egoiliar guztientzat nahitaezkoa da **Zerbitzuan egiten diren bilera** guztietara joatea, errotazio bateko saio espezifiko batekin batera gertatzen direnean izan ezik.

- **Eguneroko guardia-partea (8:30):** bezperako ospitaleratzeen azalpena (larrialdietatik zein beste arlo batzuetatik) Bezperako guardiako gora-behera aipagarriak azaltzea. Ospitaleratutako pazienteen eboluzioaren gaineko informazioa, bereziki, egoera kritikoan daudenei buruzkoa: Jaioberrien eta Pediatriako Zainketa Intentsiboetako Unitateak. Egoiliarrek nahitaez egon behar dute guardiako partean, eta poliki-poliki parte hartzen joan.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- **Zerbitzuaren saio klinikoa (8:40):** zerbitzuan 3 saio orokor egiten dira astean (astelehen, asteazken eta ostiraletan). Saioan askotariko gaiak jorratzen dira, hala nola patologien eguneratzeak, kasuistika berraztertzea, zerbitzuan egindako ikerketen emaitzak, eguneratze terapeutikoak, interes orokorreko alderdi ez pediatrikoei buruzko prestakuntza, (kudeaketa sanitarioa, kalitatea, etika...) etc. Saioak hilabetez hilabete programatzen dira (uztail, abuztu eta irailean izan ezik). Egoiliarrek saioaren bat eman behar dute 2. urtetik aurrera. Osasun-lanbideen Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Kontseiluak akrediatzen du prestakuntza-jarduera hori. Halaber, badaude egoiliarrentzako saio espezifikokoak, bibliografikoak eta kasu klinikoen inguruko eztabaidak.

Informazio gehiago nahi izanez gero, konstultatu gure “zerbitzu-zorroa” hemen: **Pediatria.**
Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea. Zerbitzu-zorroa.

Irakaskuntza Batzordeak ikastaroak ([ikusi irakaskuntza jarduerak](#)) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarriko prestakuntza osatzeko. Ikastaro gehienak nahitaezkoak dira azken titulazioa lortzeko.

Ospitaleak Saio Orokorrak ([ikusi irakaskuntza jarduerak](#)) burutzen ditu hilero asteazken batean edo bitan, 8:30ean Areto Nagusian. Saio horiek funtsezkoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea edozein izanda ere, alde batetik, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasten delako, beste batetik, Ospitalearen, zerbitzuen edo unitateen funtzionamendua ezagutzeko balio dutelako – bai eta beren arteko erlazioa zein den ere – eta bukatzeko, hainbat batzordeen jarduera garrantzitsuaren berri ematen dutelako.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Guruzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)

Tutoreek arreta handiz antolatzen dituzte errotazioak, behar asistenzialen gainetik irakaskuntza-helburuak lehenetsiz. Egoiliar berriek ongi etorriko bilera bat izango dute tutoreekin eta zerbitzuburuarekin egoitza-aldiaren hasieran. Bilera horretan, Pediatriako prestakuntza-plana eta lehenengo 20 hilabeteetarako errotazio-egutegia pertsonalizatu bana emango zaie. Bigarren, hirugarren eta laugarren urteko egoiliarrek aurrerago jasoko dute berea. Errotazioetako irizpide orokor gisa, balio bezate ondoko hauek:

- ❑ **Lehenengo urtea:** 2 hilabeteko errotazioak ospitalizazio, larrialdi eta kanpo-kontsultetako arlo orokorretan, honako hauetan: Eskola-umeak, Bularreko Umeak, Jaioberriak, Jaiotza ingurukoa, Pediatriako Larrialdiak eta patologia prebalente duen azpi-espezialitate bat, hala nola Alergia, Pneumologia eta Digestiboa.
- ❑ **Bigarren urtea:** ospitalizazio eta larrialdietako arloen prestakuntza osatzen da, eta 2 hilabeteko errotazioekin jarraitzen da beste espezialitate batzuetan: Kardiologia, Endokrinologia, Nefrologia, Neurologia.
- ❑ **Hirugarren urtea:** paziente kritikoenak artatzen dituzten espezialitate eta eremuetan arituko dira: Jaioberrien Zainketa Intentsiboak (3 hilabete), Pediatriako Zainketa Intentsiboak (3 hilabete) eta Onkologia eta Hematologia Pediatrikoa (2 hilabete). Urte horretan, 3 hilabeteko errotazioa egingo dute Lehen mailako Arretan.
- ❑ **Laugarren urtea:** espezialitate pediatriko edo ospitalizazio-arloetan jardungo dute: 6 hilabetez programazioari jarraituz eta beste 6 hilabetez egoiliarren preferentzien arabera. Azken urtean, espezialitate pediatriko bat hasi nahi duten egoiliarrek zenbait errotazioen programazioa adostu ahal izango dute tutore eta zerbitzuburuarekin, eta programa koherente bat diseinatu elkarrekin, aukeratutako espezialitateari begira.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Egoiliarak kanpoko prestakuntza-aldiak egin ditzake estatu zein nazioarteko zentrotan. Irakaskuntzako Batzordeak eta gure zerbitzuak zentro hauetan formatzea ahalbidetzen dute:

- Bartzelonako *Vall d'Hebrón* Unibertsitate Ospitalea
- Madrilgo *La Paz* eta *Niño Jesús* Unibertsitate Ospitaleak
- AEBko Cincinnati-ko *Children's Hospital*
- Londreseko *Great Ormond* Ospitalea

Prestakuntza-ibilbideak hemen ikus ditzakezu xeheago: **BAME programa 2015**



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Ikerkuntza

Ikerketarako hastapenak ere funtsezkoak dira BAME garaian. Gaur egun, ikerketa, berrikuntza eta garapena bultzatzea Osakidetzaren helburu estrategikoetako bat da. Ospitaleak ikerketa babesten du [BioCruces Ikerketa Institutuaren](#) jarduerarekin lotuta. Egoiliarrek ere parte hartu beharko dute ikerketa- eta berrikuntza-jarduera horretan. Ikerketa laguntza-jarduerarekin bateratzea zaila den arren, ikerketa zientifikoko kultura hori laguntza-taldearen artean hedatzea oso garrantzitsua da eta garapen pertsonal eta profesionalarekiko poztasuna areagotzen laguntzen du.

BioCruces Ikerketa Institutuaren barruan ama-umeentzako eta laguntza bidezko ugalketarako atal bat dago; haren koordinatzaile Itziar Astigarraga Aguirre doktorea da. Atal hori osatzen duten pediatria-taldeak eta haien koordinatzaileak honako hauek dira:

- Neonatologia taldea: Jon López de Heredia

Le-roen deskribapena: jaioberriaren ikerketa epidemiologikoa, jaioberriaren laguntzaren kalitatea eta segurtasuna hobetzea, infekzioak prebenitzea, jaioberrientzako medikamentu seguruak garatzea, jaioberrien inguruko prestakuntza-programak garatzea. Terapia eta animalia-esperimentazioko eredu berriak ebaluatzea estrategia terapeutiko eraginkorrago eta seguruagoak lortzeko berrikuntza ahalbidetuko duen informazio aurreklinikoa lortzeko.

- Gaixotasun Genetikoaren Etiologia eta Prebentzioa Ikertzeko Taldea: M^a Isabel Tejada Mínguez.

Il-doen deskribapena: jatorri genetikoko desgaitasun intelektuala. Herentziazko minbiziaren sindromeak, sortzetiko malformazioak eta genetika klinikoa, osteogenesi inperfektua.

- Ama-Fetuaren Ikerketa Taldea: Txanton Martínez Astorquiza Ortiz de Zárate.

Le-roen deskribapena: Zesarea-tasa arrazionalizatzea, Ama-Fetuaren Patologia. Prematuro berantiarrak



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- **Onkologia Pediatrikoko Taldea: Itziar Astigarraga Aguirre.**
Lerroen deskribapena: Garuneko tumoreak, minbiziarekiko familia-agregazioa, leuzemiak, histiozitosia, sepsi larria, minbiziaren arloko immunoterapia.
- **Haurren eta Nerabeen Larrialdietako Arreta Hobetzeko Estrategia Berriak Ikertzeko taldea (talde elkartua): Francisco Javier Benito Fernández.**
Lerroen deskribapena: Haurren eta nerabeen larrialdietako arreta hobetzeko estrategia berrien ikerketa. Intoxikazioak, infekzioak,
- **Pediatriako Zainketa Intentsiboetako Unitatea: F. Javier Pilar Orive.**
Lerroen deskribapena: Diagnostikorako metodoei eta patologia kritikoa duten paziente pediatrikoari aplikaturiko neurri terapeutikoei buruzko ikerketa, esku-hartze proiektuak proposatu ahal izateko.

José Ramón Bilbao Catalá doktoreak koordinatzen duen Endokrinologiako, Metabolismoko, Nutrizioko eta Giltzurruneko Gaixotasunetako Ikerketa Atalean jakintza-arlo horietako hainbat gaixotasun kronikotan, prebalentzia duten gaixotasunetan eta gaixotasun arraroetan interesa duten beste pediatria batzuek ere ikertzen dute. Hurbilketa kliniko, biokimiko eta molekular/genetiko batetik, hainbat taldek etiopatogeniaren karakterizazioan, epidemiologian eta diagnostikoa egiteko estrategia eta estrategia terapeutiko berrien bilaketan egiten duten lan, aurrerapen zientifikoa pazienteari helarazteko ikuspegi batekin. Honako talde hauek dira nabarmentzekoak:

- Giltzurruneko gaixotasun hereditarioak eta arraroak
- Diabetesaren eta gaixotasun endokrinoen genetika eta kontrola
- Zeliakiaren arloko ikerketa funtzionalak
- Metabolismoaren sortzetiko nahasmenduak
- Endokrinologia, diabetesa eta obesitate pediatrikoa



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- Gaixotasun zeliakoa, nutrizioa eta elikadura traktuko gaixotasunak. Sortzetiko trastorno metaboliko zenbaiti buruzko ikerketa, izan lipidoei, karbohidratoei edo aminoazidoei buruzkoa, diagnostikorako estrategia goiztiarrak definitu nahian ari da, behar bezalako prebentzioa eta trataera goiztiarra lortu ahal izateko. Azkenik, kaltzio-fosforo trastorno metabolikoak eta giltzurrunetako tubulopatiak goraka ari diren ikerketa-arloak dira; trastorno klinikoak ezaugarritzea eta estrategia terapeutiko eraginkorragoak definitzea dute xede. Ikerketa-taldeetan oinarrizko ikertzaileak eta ikertzaile klinikoak daude, eta erreferentea dira beren arloan Estatu mailan. Ezagutzar- arlo horietako hainbat nazioarteko lantaldeetan parte hartu dute, europar edo nazioarteko proiektuetan.

Datu-bilketaren hasiera edo ikerketaren planteamendua ospitaleko prestakuntza-garaian egitea komeni da, lana geroago egingo bada ere, esaterako doktorego-tesi moduan aurkeztu arte. Halako azterketa batean lehentasunez aritzeak ez du eraginik izan behar egoiliar batek gauzatu beharreko oinarrizko prestakuntzan. Ikerketa-lan horietan parte-hartzea egoiliar bakoitzaren interesaren eta lanerako jarreraren baitan dago, hein handi batean. Gaur egun, finantzaturiko proiektuetan parte hartzeko aukera dago, eta azken urteetan bi pediatriak izan dute BAME ondorengo ikerketa-beka bana.

Egoiliarrek ikasi beharreko funtsezko beste lan bat zerbitzuko ikerketa klinikoaren garapenari laguntzea da, historia klinikoen berrikusketaren eta lan zientifikoaren bitartez. Espainiako edo nazioarteko aldizkarietan publikatzea merezi duten kalitatezko lanak egiteko ahalegina oso garrantzitsua da, eta bultzatu egin behar da egonaldian zehar. Hemen duzue jarduera zientifikoari buruzko informazio xehatua: hospitalcruces.memoriacientifica



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. “**Ebaluazio formatiboa**” deitutako ebaluazio mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten bat lantzen du aho batez, eta bertan, egoiliarraren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera “**Egoiliarraren Urteko Txostena**” osatzen dute. Tutorea prestakuntza prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Alergia Zerbitzuko BAMEek (Barruko Mediku Egoiliarrak) lortu beharreko gaitasunak, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Asistentzia- eta irakaskuntza-gaitasunak, espezialitatearen beraren ikerketa gaitasunekin batera, hemen biltzen dira: [Programa oficial de la especialidad de Pediatría y Áreas Específicas.](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio sistema orokorra¹.

[Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den [“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”](#) proiektuaren parte da. [Ebaluazio metodoak](#) hauek dira:

- Txandatze bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredua)
- Tutorearekin aldi behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- Autoebaluazioa
- Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlazionaturako beste ekintzen kuantifikazioa
- Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.

- Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze inkesta bat bidaltzen die.
- Bi urtean behin, otsaila eta martxoaren bitartean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da. Emaizak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaie.

Irakaskuntza Batzordeak onartutako Pediatria zerbitzuko berezko metodoak.

Irakaskuntza-prozesuaren ebaluazioa modu sistematikoan egin behar da. Egoiliarren ardurak eta ezagutzak bereganatu behar ditu apurka-apurka. Bide horretan, tutoreen, staff-eko medikuen eta zerbitzuburuaren laguntza izango du. Halaber, zerbitzuaren irakaskuntza-gaitasuna aldiro-aldiro ebaluatuko da.

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberrri M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J y González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (Supl 2): S62. Disponible en: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Horregatik ezarri da aldizkako ebaluazio-sistema bat egoiliarrentzat eta zerbitzuarentzat, BAME aldiko prestakuntza orokorrari buruz eta, zehazki, errotazio bakoitzari buruz. Irakaskuntza Batzordeak eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den “Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua” proiektuaren parte da.

- **Egoiliarren balorazioa errotazio bakoitzari buruz.** Errotazio bakoitza bukatzean, jaso duen prestakuntzari buruzko galde-sorta bati erantzun behar dio egoiliarrek. Galde-sortak pediatriako tutoreei entregatzen zaizkie. Ematen duten informazioa oso baliagarria da hobetu daitezkeen arloak detektatzeko.

Ahal dela, urtean behin Pediatriako Zerbitzuaren bilera orokor bat egoiliarren prestakuntzari buruz mintzatzera dedikatzen da eta, besteak beste, ebaluazio horren emaitzaren berri ematen da bertan.

- **Egoiliarraren balorazioa prestakuntza orokorrari buruz BAME aldia bukatutakoan.** Egoiliar-denbora bukatutakoan, inkesta bat egiten da egoitza-aldiaren antolamendua balora dezan eta hobetu daitezkeen alderdiak aipa ditzan.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Pediatría eta Arlo espezifikoak ©